

II

MUNDU UNIBERTSOKO HIRIBURUA

FRANTZIA handia da eta Nafarroa, tikia. Horrek mota anitzetako arazoak sorrarazten ditu. Arazoak Nafarroari, bistan dena, ez Frantziari. Arazoak, Frantzia eta Nafarroa elkarrekin gaizki etortzen direnetan. Eta arazoak, Frantziak eta Nafarroak elkarrekin ongi etorri nahi izaten dutenetan ere.

Ez zen lehen aldia Nafarroa ñimiñoako tronuaren oinordekoak Frantzia alimalekoko erregeren arreba esposatzen zena. Henrike Albretekoa ere –erregina Joanaren aita eta aitatxi Migelen anaia erdia– egokiera horretan gertatua zen, ni sortu baino aise ere lehenago. Ez dakit orduan nola moldatu ziren, auzo gaitzekoaren itzalak gure erresumañoa ikusezin bihur ez zezan. Oraingoan, Henrike Borboikoak ez zuen etxe bazter bateko kapare landerraren itxuran agertu nahi bere koinatua izanen zenaren parera. Margarita Valoiskoarekin uztartzera abiatzen zen egunean, Vianako printzeak zaldun talde bat nahi zuen berarekin lekuko, bakoitza Albret-Borboi leinuaren menpeko lurralde baten ordezkari: Nafarroa Beherea, Biarno, Bigorra, Foix, Labrit, Vendôme... Guztiak Henrike bera baino gazteagoak, guztiak erreformatuak eta guztiak gisa berean jantzirik.

Behin baino gehiagotan galdegin izan diot neure buruari, ni izanen ote nintzen horretarako hautatua, nire adintsuko

gazte higanot anitz izan balitz Nafarroa Beherean. Ezetz apustu. Erran izan dut bertze nonbait: ale bakana izateak moldatu eta araberatu dit bizitza.

–Bozkarioak gainez egin behar lizuke. Ohore handiagorik ez da Nafarroako erregeren peko batendako.

Paueko jauregira ailegatu berria nintzen eta gorteko ostatu-maisua ari zitzaidan. Urtebete ere ez zen handik aterea nintzela. Hainbat hilabetez ibilia nintzen leku horretan, printze Henrikeren adiskidetasunak eskaintzen zizkidan abantaila guztiez profitatzen. Orain, ematen zuen hori guztia mende bat lehenago gertatua zela. Arras bertzelako plantan heldu nintzen hara.

Beharbada zuzen zegoen gorteko ostatu-maisua. Ez zitekeen ohore handiagorik niretako. Bozkarioak ez zidan gainez egiten, haatik. Atorra gorri brodatu zuloduna eta galtza urdinak erosi behar izan nituen, eta urdinez kapelu lumaduna ere. Irabazleek –eta galtzaile batzuek– sakela bete sos dutela bururatzen dituzte gerlak. Ez nintzen horietarik. Bertzalde, ez Enekotek ez Katalinak ez zuten gizendu nahi izan nire poltsa arina. Nago Ezponda jelsian gelditu zela, ez baitzen bere seme Joanes Pariserako hautatua. Eztei arropa eskuratzearekin batera ihes egin zidaten nire diru apurrek.

Bertzerik zen ezkontza egunean nirekin batera joanen ziren gainerako mutikoen kezka. Roger Pardiac bigorrrarra, Arnaud Nérestan Labritekoa eta Alexandro Galard biarnesa etxe-mutil eta guzti agertuak ziren gortearen deira. Foixko Frantzisko Lers salbuespena izan zen. Ez dakit nire egoera berean ote zegoen edo, bertzerik gabe, aita xuhurragoa zuen. Bortzei “printze-lagunak” erraten ziguten jadanik gortean, bertze titulu egokiagorik ez izan-eta. Haiek bazuten arropa nork garbitua eta nork konpondua. Bazuten armei nork distira aterea. Bazuten bideko ostatu batean ontzi bete arno pagatzeko adina zilar ere,

patrikan. Nik haiek ez zuten oparia baizik ez nuen, zenbaitetan pozoitsua gertatuko zen arren.

Gorteko ostatu-maisuak Henrikerengana eraman gintuen ailegatu eta biharamunean. Paueko gaztelua irakiten dagoen tupina zen egun haietan. Frantziarako bidaiaren prestakuntzetan, pil-pil zeuden guztiak, Errege Kontseiluko kideengandik hasi eta azken neskatoa barne. Hau lasterka, hura harrabotsean eta denak zainak dantzan, halako eromenik gudatokian baizik ez nuen lehenago ikusi. Alabaina, han kristauak ez ziren elkar hiltzen ari.

Printzea bere gelaren ondoko korridorean atzeman genuen. Atorra hutsean zegoen, gizon batekin eztabaidan. Banuen haren ezagutza, erreginarean sukaldearen hornitzailea zen. Henrike kargu hartzen ari zitzaion: Axpe ibarretik etortzekoa zen gasna saila ez etorki. Nitaz ohartzearekin ahortzi zen gizonaz:

–Joanes, tripa-ustel hori! Non gorde haiz hilabete hauetan?

Non gorde? Berak jakin behar zuen. Enekotek egia erran bazidan, ni Pauetik kanpora eramateko erabakia ez zen printzearen jakin gabea hartu. Henrikek zinez kontent ematen zuen, ordea, ni hor ikusteaz. Horrek baizik ez zuen axola.

Bertzeen aurkezpenak egitera saiatu zen gorteko ostatu-maisua.

–Ixo, hitzontzi ez bertzea!

Henrikek bizkarra inguratu zidan besoarekin.

–Ene iruinseme fierra! Coaraze aldera joateko amorratzen nagok. Joan den urtean bota gabe utzi hituen basurde guztiak hor barna ibiliko dituk oraino.

Bere ganberan sarrarazi ninduen, nirekin heldu zirenei begirada bat ere eskaini gabe.

JOANA Albretekoak hainbat hilabete zituen Parisen, Frantziako erregina-amarekin tratuan. Hara abiatu aitzin, Bernard

d'Arros fidela, Nabarrenkoxeko nire buruzagia, utzia zuen berriz ere bere ordezko, erresumako lotinant jeneral. Maiatzaren erdi aldera atera behar genuen Pauetik, erreginarekin biltzera. Henrikeren bat-bateko sukarrak berandutu zuen partitzeko tenorea. Gure printzea ongituta, hilabetearen azken astean erran genion adio erresumako hiriburuari. 15 urte egin berriak nituen.

Udaberriko eguzkipean, legoa erdiko lerro luze eta koloretua moldatzen genuen Biarnoko bideetan barna. Printzea bizkarturik, baroi handi zenbait eta zaldun andana joaki ginen gure zamarien gainean. Oinez, berriz, Henrikeren soldatapeko suitzarrak, eta arkabuzari eta baleztari ehunka batzuk. Armagabeen tropa ez zen murriztagoa. Ministroen arduraren gure arima zen; administrariena, eskura izatea bidaia egunez egun posible egiteko beharrezko dirua. Horiekin batera, bidaztien premiak asetzeko lana zuen bertze jendetza batek: lekaioak, jauregi-mutilak, neskatoak, printzesaren damak eta dontzeilak, ofizio desberdinetako maisu eta laguntzaileak, sukaldariak, harakinak, okinak, arotzak... Gehienak beren puska eta lanabesekin batera bidaiatzen ziren, idi edo mandoek garraiatu-riko orgetan. Legoak egin bitartean inor ez zen haragiaren zaporeaz ahantziko, behi, ardi, zerri eta antzar saldoek lerroari segitzen baitzioten, beren unai, artzain, zerrizain eta gainerakoek gidaturik.

Lerro-buztana, berriz, lanbide zehatzik gabeko gizon-emakumeek osatzen zuten. Gehienetan segizioan leku bat berenganatzen ahalegintzen ziren, diren zerbitzu mota guztietarako alokatuz beren burua, batik bat soldaduen irritsak eta beroaldiak itzaltzeko. Gehienek, hala ere, ez zioten uko egiten gure bizkar ohointzan edo lapurretan aritzeko paradari; maiz, gure sukalde eta gurdietara hurbiltzen saiatzen ziren, non zer harrapatuko. Horretarako ere gauza ez zirenak bidaiariak utzita hondakinengatik borrokatzen ziren elkarren artean. "Pil-

datsuak” erraten genien, gehienek pildak baizik ez baitzituzten soinean. Egunero izaten genuen gatazkaren bat haiekin. Gure armagizonek gogor erabiltzen zituzten. Bi-hiru egunetik behin, horietariko batekikoak egiten zituzten, zuhaitz batetik zintzilikatuta.

Henrikek bere mahaian lekua egin zidan batean, pildatsuez ari ziren eztabaidan.

–Ministroek jendaila hori gure ezpatekin uxatzeko galdegin zidatek, Joanes. Bekatua omen zeramatek beren larruazalean eratzikia.

Baroi eta jende printzibal andana zegoen Nafarroako oinordekoaren inguruan: printzearen lehengusu eta izenkide Henrike Albretetkoa, erresumako lehen kaparea; Nafarroako kantziler Barbier de Francourt; Henrikeren gobernari Goulard de Beauvoir; lehengo gobernari Lavardin. Henrikeren ganberazain Joanes Armagnac-ekoa ere hor barna zebilen, deitura handikoa baina ez hain printzipala.

–Birongo jauna, harrigarriki, ministroekin bat heldu duk –erantsi zuen gure printzeak.

Frantziako erregeren mandataria zen Biron, erresumako artilleria-maisua. Erromazalea, bistan dena. Gure printzea bere nagusiarenganaino eramateko ardura zuen bizkar gainean, eta ez zuen gordetzen presatua zela eginbeharra ahalik eta denbora laburrenean bururatzeko. Gure jendearen artean omena zebilen egunero igortzen ziola mezulari bat bere jaunari, eta berari bertze horrenbertze etortzen bere jaunarengandik.

–Gure lehengusu Miossens ez duk iritzi berekoa.

Guztiek Miossens erraten genion Henrike Albretetkoari, Miossens eta Coarazeko baroia baitzen. Printzearen eskuin aldean jarria zegoen mahaira, erresumako lehen kaparea iza-teagatik zegokion lekuan.

–Jauna, ministroek diotena kontuan hartzekoa da beti
–Miossensek–. Alabaina, zertarako uxatu beren jauna zerbitzatzeko prest dagoen jendea?

Henrike irri-karkailaka lotu zen.

–Jendaila hori ni zerbitzatzeko prest? Inoiz ez nuen halakorik amestuko. Ba ote da hori frogatzeko manerarik, nire lehengusu maitea? Edo haien artera agertu beharko dut eta beraiei zuzenean galdegin?

–Ez litzateke beharrezkoa –ihardetsi Miossensek–. Bezti Joanes Mailuri zure arropak. Igor haiengana. Berak galdegin diezauela.

Trufaz ari zen, bistan dena. Egiaz ari izan balitz bezala jokatu zuen Henrikek.

–Joanes igorri, nire orde?

–Zure arroparik gabe ere nahasiko lukete zurekin.

Berotasunak bereganatu zuen nire musua. Beldur izan nintzen Nafarroako printzeak gaizki hartuko ote zuen bere lehengusuaren ateraldia. Ez zuen ematen hala zenik:

–Zer iruditzen zaik, Joanes? Hala egin behar ote dugu?

Lehengo urtetik nuen Henrikeren ezagutza. Ez ninduen ustekabean harrapatu niri galdetzeak. Ez zen gauza bera, haatik, halako jendearen aitzinean. Begiak mahaitik kendu gabe abiatu nintzen erantzutera, herabetasunak mihia moteltzen zidala.

–Igortzen nauzun tokira eta igortzen nauzun bezala jantzirik joanen naiz, jauna.

Uste baino asebateago gelditu zen Henrike.

–Gure amaren peko guztiek ez liketek gauza bera erranen
–aditu nion.

Auzia ez zegoen trenkatua, hala ere. Biron ere ohorezko lekuan zegoen, Henrikeren ezker aldean. Handik, bere desadostasuna erakutsi zion mahaiburuari.

–Mozorroak-eta on dira astearte-inauterako. Gainerakoan, zer irabaziko luke Nafarroako printzeak, zerbitzatzeko

prestasuna agertuko baliote ere? Zinez, zertan izaten ahal zaizkio gosekil horiek baliagarri?

Bironek, zenbait hilabete lehenago, bakea negoziatua zuen Joanarekin eta buruzagi higanotekin, Karlos IX.aren izenean. Henrikeri seme bati bezala mintzatzen zitzaion, gaskoia baliatuz beti, Perigordekoa baitzen. Eta printzeak onartzen. Niretako, bazuen zerbait asaldagarria gure erreginaren semeak papista frantses hura begi onean zuela ohartzeak.

Henrikek isilik iraun zuen puska batean, gogoeta iduri. Gero, nire aldera bihurtu zuen begirada.

–Birongo jaunari erantzunik emateko manerarik ba ote duk, Joanes?

Barnea uzkurtu zitzaidan, berriz ere denak niri so ikusirik. Ez hargatik isildu.

–Nabarrenkoxen izan nintzen Frantziako erregeren armadak hango ziudadela setiatu zuenean –setiatzaileetarik izan balitz bezala behatu nion Bironi–, eta bortxaketak ikaragarri emendatu ziren, ministroek galdeginik jende klase hori murrutatik kanpora egotzi zutenez geroztik.

Bironek belztu bezainbat argitu zuen bisaia Miossensek.

–Adu duzue –erran zuen erresumako lehen kapareak, garaile–. Ingu ratzen ditugun lurraldeetako emakumeen bertuteari on egiten dio pildatsu horiek gure atzetik ekartzeak.

–Eta zer gauza inportanteagorik, emakumeen bertutea baino –Henrikek–. Ez da hala, jaun-andreak?

Inork ez zuen Nafarroako printzea ezeztatu.

BIARNOTIK atera ginen, mantso bai mantso. Jostatzeko bideak eskas genituen eta erokeria tikiak asmatzen genituen. Bironek, bere eskoltako gizonez gain, fraide bizar-handi bat zekarren berarekin, baroiarendako eta haren jendeendako egunero meza ematen zuena. “Printze-lagun” izatekook plana egin ge-

nuen, delako monjea bahitu eta bizarra mozteko. Gure arteko mihi-luzeren batek behar ez zuenari erranen zion, debekatu baitziguten fraidearengana hurbiltzea.

Frantziako erregeren lurretan hainbat legoa egin ondoan, Nérac jo genuen. Albretarren jabego buruenetakoa zen toki hura, Henrikeren amaren nahiz amatxiren toki maitatuenerarik. Aitaxirengandik ikasita nekien haren berri. Henrike gazteluan ostatatu zen. Gainerako jendetza, haren murruean magalean. Bi-hiru egun baizik ez ginen han egotekoak, baina borzgarrena jo genuen lekutu gabe. Henrikek gazteluko lorezainaren alaba bere ohera erakarria zuen, eta ez zuen hortik kanporatzeko presarik. Ikuskizun bitxia ikusi genuen egun haietan: Biron papista eta gure ministroak besoz beso berriz ere, Nafarroako oinordekoa onbidera eta, bidenabar, Parisko bidera eraman nahian.

Henrike ez zen kontent.

–Printzea nauk, Joanes. Lehenago hiltzen ez banaute, errege izanen nauk egunen batean –ziostan tristeki–. Iduri luke dena dagoela nire esku.

Elkarren ondoan genbiltzan, nor bere zaldiaren gainean.

–Egiazki, ordea, ez diat gustatzen zaidan neskarekin gelditzeko eskubiderik ere, erresumaren izenean gustatzen ez zaidan batengana lasterka joan behar dudalako.

Nik ere ez nuen maite harekin ezkontzekoa zena. Egia erran, Henrikeren ezkontza, gure bidaiaren xede eta helburua, ospakizun baino areago, ezbeharra zen gu gehienendako. Jende anitz ari ginen gure printzearen ondotik, Parisera inoko asmoz, baina gure arteko epelenei baizik ez zitzaien onespén hitzik entzunen egitekoak ziren ezteien inguruan.

–Gauza negargarria da, bistan dena, andre Margarita erromazalea izatea –saiatu nintzen Henrikeren atsekabearekin bat egiten.

Omenak sinestera Colignyren itzala gero eta handiagoa zenez Frantziako erregeren gainean, hondarrean Karlos IX.aren arreba Erreformara erakartzeko esperantza agertzen zuten gutariko batzuek. Azkeneko gerlan parte hartutako gehienok, berriz, sineste txipia genuen. Kontrara, Valoistar endekatu horiek gure erreginarean semea papista bilakatuko ote zuten, horra zerk laburtzen zigun loa.

–Hara, Joanes, ez izan ergela. Nik inoiz ez zieat emakumei galdetzen Erromako edo Genevako moldean egiten dioten otoitz Jainkoari. Hik halaberean jokatu behar huke.

–Jauna!

Henrikek plazer tiki bat zuen bere inguruko eskandalua pizten. Nirekin ez zuen lan handirik behar.

–Katoliko errabiatu omen zabilek nire emaztea izanen dena. Baina zer erran nahi du horrek? Ni ere, halakoa izana nauk bi aldiz nire bizitzan. Bietan etorri nauk, gero, fede egiazkora.

–Hala izan da, jauna.

Bistan dena, ez nuen erantsi gauzak horrela joan baziren, Erregina Joanaren borondateari zor ziola bietan. Alderdi higitan denek genekien istorio hori.

–Hirugarrenez beren aldera ekarriko nautelako esperantza baditek nire lehengusuek eta nire izeba Katalinak. Ederki ezagutzen ditiat tripa-ustel beltz horiek. Ez dituk aise etsitzen dutenatarik.

“Izeba”, “lehengusuak”. Ez zen aise sartzen ene kaskoan gure Henrikeren ahaide zuzenekoak izatea Frantziako erregina-ama eta errege Karlos IX.a eta bere anai-arrebak, gure etsai bortitzak denak.

–Baina trankil egoten ahal haiz, Joanes. Tikitan, urteak egin ditiat Frantziako gortean. Denekin jostatua nauk, eta denekin borrokatua. Buruz burukoetan, ni izaten ninduan beti garailea, nire lehengusu guztien kontra ari izanda ere.

Segurtasun horrek kutsatzen ninduen eta bihotzeko laino guztiak aienatzen. Henrikek ez zigun inoiz traiziorik eginen. Sugez beteriko gorre ustel horretan ere, jakinen zuen guztiei nagusitzen.

MIOSENS albretarren adar baten oinordekoa zen aitaren aldetik, eta borboitarren bertze batena amarenetik. Bi aldiz zen, beraz, Henrikerekin ahaidetua. Printzeak, bere haur denboretan, bolada luzeak egiten zituen Coarazen, haren gazteluan. Miossens 17 urte zaharragoa zen, eta horrek anaia helduarena egiteko parada eman zion Henrike umearekin. Ez zuen egokierarik galtzen horretaz noraino zegoen harro inguruko guztiei adierazteko. Frantziako lurretan barneratzen ginen bitartean, hiru-lau aldiz aditu nion ehizan eta ezpatan berak erakutsi ziola Nafarroako printzeari. Henrikek ez zuen ukatzen. 1568ko irailean erregina Joana eta bere bi seme-alabak Arroxelara partitu zirelarik, Miossens izan zen haiekin abiatu ziren biarnes zaldunetarik. Frantziako erreformatuen armadari gehitu zitzaion eta 1569an Colignyrekin zegoen Montcontour-eko batailan. 1570ean, Nafarroako errege familiarekin batera itzuli zen erresumara. Etxeratzeak ez zion minik emanen, erreginak zerbitzu zahar eta berriak saritu baitzizkion tronuan jarri bezain agudo. Harenak izan ziren Gerderesteko baroi traidorearen ondare guztiak.

–Gerderest? –harritu nintzaion. Henrikerekin atsegin izan nahirik-edo, erreginak berarekin izandako eskuzabaltasunaren kanta egin berria zigun Miossensek.

–Bahuen haren ezagutza? –trufa aire batez, baroiak.

Ikararik gabe ihardetsi nion:

–Neronek kalitu nuen.

Bertze solasik baldin bazen mahaian, braust itzali zen une hartan. Segizioko jenderik handienak zeuden han. Henrike,